

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Enpresen lankidetzaz alde batera utzita, gure taldea 5 bazkidez osatuta dago, hala ere, beste enpresekin elkartzea ezinbestekoa izango da gure proiektua aurrera eramateko. Partaide bakoitzak, arlo baten jabea da. Carla Uzal eta Helis Nieto, diseinu eta *marketing* arloan aritzen dira. Dakigunez, kontsumitzaileak erakartzea eta sustapenak, ezinbestekoak dira enpresaren garapenerako. Finantza arloan, Maria Rodriguez eta Irea Fuentes aritzen dira. Kostuak, diru-sarrerak...eguneratzea oso garrantzitsua da gure enpresa ordena bat mantentzeko. Amaitzeko, Ane Amigo, enpresaren negozioaz eta beste enpresekin harremanetan egoteaz arduratzen da.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta bakoitzak arlo batean aritu ordena mantentzeko, bostak bildu egin dugu informazioa eta ideien garapena burutu dugu.



Azaldu dugunez, gure bezero nagusiak udalak edota enpresa nagusiak izango dira. Hortaz, erakundeetara joatean gure ideia promozionatzea lortuko dugu eta modu horretan kontsumitzaileak izango ditugu. Biztanleriari dagokionez, Google-ekin kolaboratzeagatik erabiltzaileak lortu ahal izango ditugu. Enpresa hori oso indartsua denez erraza izango da haien bezero fidelak gure ideia erabiltzea edota modu errazagoan eskaintzea. Egia da, Google enpresarekin lantzea oso zaila dela, hortaz, beste enpresa batzuekin kolaboratzera prest gaude, GPS kontuak daramatenak. Udalei dagokionez, kaleetan publizitate handiak jar dezakete propaganda moduan.

Bezero adina guztiei ailegatzea posiblea izateko udalak hitzaldi doainak egin ahal dute nola funtzionatzen den jakiteko. Honekin bezero gehiago lortuko ditugu eta ez bakarrik teknologia erabili dakitenak, baizik eta aukera ematen diogu aitona-amonari informazioa jasotzera.

Dakigunez, garrantzi handia dauka zein nolako harremanak ditugu beste enpresekin. Bere laguntzarekin lortuko dugu gure produktua aurrera eramatea, kontuan hartuz zerbitzu bat dela, ez bezero



zuzen bati saltzen dugun produktua. Hortaz gain, App bat izanez, oso erraza izango da hedatzea.